



Ormaiztegui Udala

Udal1-batzarre
E-20.02.05

2020ko otsailaren 5eko UDALBATZA OSOKOAREN BATZARRE EZOHIKOA

ORMAIZTEGIIn, 2020ko otsailaren 5ean, eguerdiko 14:30etan, Udaletxe honetako Bilkura Areto Nagusian Udalbatza Osoa biltzen da, Jon ENRIQUE GALARZA alkate jaunaren lehendakaritzapean BATZARRE ezohikoa lehen deialdian egiteko asmoz, behar den forman eta aldez aurretik Udalkide bakoitzari igorria izan zaien AZTERGAI ZERRENDAREN arabera.

Batzarreratzen dira ondoko Udalkide Jaun/Andreok:

- Ione USABIAGA ARRATIBEL And.
- Dunixi MURUA ANTIA Jna.
- Juan LOBATO AMADO Jna.
- Asier ETXARRI ESKISABEL Jna.
- Aitor OKARIZ ELORTZA Jna.
- Agustín GILABERT MOLINS Jna.
- M. Lierni YURRITA ARREGI And.

Idazkaria:

- Begoña Antxustegi Bengoetxea And.

Ez dira agertzen, bere ezagertzea desenkusatuta:

- Inor ez.

Ez dira agertzen, bere ezagertzea desenkusatu gabe:

- Garazi HACH EMBAREK IRIZAR And.

Segidan Lehendakariak hasiera eman dio bilerari, Udala osatzen duten eta dagozkion kideetatik gehienak bertaratu direnez eta, ondorioz, gutxiengo quorum-a gainditzen denez.

...//...
E-20/02-01



Ormaiztegui Udala

Udal1-batzarre
E-20.02.06

...//...

LEHENENGO PUNTUA:

Ormaiztegui udalerriko kale garbiketa zerbitzua kontratatzeko espedientea eta Pleguak onartzea, bai eta alkateari eskaintzak saikatzeko eta esleipena egiteko eskumenak eskuordetzea.

Idazkariak udalkideen eskura jarri du espedientearen dokumentazioa eta galdetu du ea baten batek galderarik, oharririk edo bestelako ekarpenik ote duen.

Asier Etxarri zinegotzi jaunak galdetu du Plegu Administratiboaren III. Eranskinean agertzen den langilearen kostua kontratuaren kostuari gehitu behar ote zaion.

Alkateak azaldu du langilearen kostua kontratuan sartuta dagoela, kontratu hauetan subrogatu egiten dela langilea eta, ondorioz, enpresa aldatzen bada ere, langileak bere jardunean jarraitzen duela lan baldintza berdinekin baina esleipen hartzaile berriaren plantillan, kontratuak irauten duen bitartean behintzat.

Ondoren Etxarri jaunak itaundu du ea zapatuko lanaldia sartuta ote zegoen orain arte indarrean egon den kontratuan eta alkateak baietz erantzun dio.

Horren harira, alkateak kontratu berriari sartu diren aldaketak azaldu ditu bai zonifikazioari dagokionean bai maiztasunari eta ekipamenduari dagokionean eta, hori dela eta, kontratuaren lizitazio prezioa igo egin dela arrazoitu du.

Idazkariak gaineratu du ezin dela jakin zein izango den azkenean kontratuak izango duen kostua, hori lizitatzailen eskaintzen arabera izango baita eta, beti ere, Legeak ezartzen duen mugatik gorakoa izan beharko dela, hau da, prezioaren "baja temeraria"-tzat hartzen direnak baztertuta.

Hortik aparte, idazkariak ohartarazpena egin du Kontratazio Mahaiaren osaketari dagokionean eta adierazi du, 9/2017 Legeak Mahaiaren osaketari jarri dizkion baldintzak betetzeko, Aldundiak lau funtzionario bidali beharko lituzkeela Ormaiztegui Udalean, eta beste Udal txiki gehienetan, denetan ez bada, Kontratazio Mahaia osatu behar den guztietan, eta praktikan ezinezko egiten dela Udalarentzat eta baita Aldundiarentzat ere. Hortaz, Administrazio Pleguetan jasotzen den Kontratazio Mahaiaren osaketak ez duela betetzen 9/2017 Legeak agintzen duena, ezinbestean.

Ez da beste ekarpenik izan eta bozkatzeari ekin zaio. Aldeko botoak izan dira guztiak eta, hortaz, ahobatez onartuta geratu da espedientea, Pleguak barne, bai eta alkateari eskaintzak saikatzeko eta esleipena egiteko eskumenen eskuordetza.

...//...
E-20/02-02



Ormaiztegi Udala

Udal1-batzarre
E-20.02.07

...//...

BIGARREN PUNTUA: **Erreguak eta galderak**

Aitor Okariz zinegotzi jaunak adierazi du pretsan argitaratu dela Ormaiztegirako autobian Aldundiak bidesaria kobratzeko asmoa duela eta galdetu du ea Udalak ez ote lukeen adierazpenen bat egin behar, edo ekintzaren bat burutu.

Alkateak erantzun dio hitzordua hartuta daukala Bide Azpiegituretako Foru aldunarekin, otsailaren 14ean, bere desadostasuna agertzeko, gaia azertzeko eta Udalaren kexa aurkezteko, asmoaren berri prentsatik jakin duelako.

Ondoren, Asier Etxarri zinegotzi jaunak galdetu du ea Udalak informaziorik ote duen CEPSAk Mutiloako udalerrian zabortegia handitzeko asmoaz.

Jon Enrique alkate jaunak esan dio ez dela informazio zuzenik jaso baina Sasetako Mankomunitateak bilera deituko duela gai horren inguruan. Zabaldu denez, Mutiloako Herri Batzarrak ezetza eman diola zabortegia handitzeari baina ez dagoela momentuz horren berri argirik azaldu du alkateak.

Eta bilkuraren puntu honetara iritsita, 14:55 ordu direnean, bilkura amaitutzat eman da. Eta nik, Idazkari-Kontuhartzailea naizen aldetik, horren akta egin eta ziurtatzen dut bertan esandakoa leial jasotzen duela.

Ormaiztegin, 2020ko otsailaren 6an.

Idazkaria-Kontuhartzailea,

Sin. Begoña Antxustegi Bengoetxea

...//...

E-20/02-03